Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2022ZAUN0119

Irun
Alkate-udalburuak onetsia Aprobado por la Alcaldía
2023.(e)ko martxoaren Presidencia por resolución Nº 209
...2.(e)ko 209 zenbakiko de Fecha 02/03/2023
ebazpenaren bidez.
Irun, 6-03-2023
Idazkaria / La Secretaria
AYUNTAMIENTO DE IRUN SECRETARIA

MENDIBIL AUZOAREN BEHARREI BURUZKO AZTERLANAREN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DEL ESTUDIO DE NECESIDADES DE LA ZONA DE MENDIBIL

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	MUGIKORTASUN, BIDE PUBLIKO ETA OBRA ARLOA / AREA DE MOVILIDAD, VIA PUBLICA Y OBRAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0119

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xede zuzena Mendibil auzoaren hirigintzako beharrei buruzko azterlan bat egiteko zerbitzuen kontratazioa da, plegu honetan eta kontratu honen baldintza ekonomiko-administratiboetan xedatutakoaren arabera.

2.- EGIN BEHAR DIREN LANAK

Prozedura honen xedea da lan hauek idaztea:

2.1 EGUNGO EGOERAREN ANALISIA

2.2 ALTENATIBEN PROPOSAMENA

Azterlanaren jarduketa-eremua preskripzio teknikoen plegu honen 1. ERANSKINEAN dago jasota.

3.- AURREKARIAK

Mendibil muino bat da, eta muga hauek ditu:iparraldean, N1 errepidea; hegoaldean, Cipriano Larrañaga kalea; ekialdean, Gudari kalea; eta mendebaldean, Jacobo Arbelaitz kalea. Kota aldetik, alde handiak daude urbanizazioa osatzen duten kaleetan. Erdialdeko eremua aurreko mendearen hasieran eraikitako zenbait txaletek osatzen dute, estilo frantsestukoak dira eta garaiko gizarteko goiko mailarentzat eraiki ziren, eta asko eta asko Irungo Ondarea Babesteko Katalogoan sartuta daude. Eremuaren urbanizazioa garai hartan txalet horietara iristeko antolatuta dago. Lehen, lantegi garrantzitsu

1.ª- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto directo de este contrato es la prestación de servicios para hacer un estudio de las necesidades urbanísticas del barrio de Mendibil con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego y en el Pliego de Condiciones Económico Administrativas de este contrato.

2.ª-TRABAJOS A REALIZAR

El presente procedimiento tiene por objeto la redacción de los siguientes trabajos:

2.1 ANALISIS DE LA SITUACION ACTUAL

2.2 PROPUESTA DE ALTERNATIVAS

El ámbito de actuación del estudio se incluye en el ANEXO 1 de este Pliego de Prescripciones Técnicas.

3.ª- ANTECEDENTES

La zona de Mendibil es una colina que se encuentra limitada al Norte por la carretera N1, al Sur por la calle Cipriano Larrañaga, al este por la calle Gudari y al oeste por la calle Jacobo Arbelaitz, con una diferencia de cota considerable entre las diferentes calles que conforman la urbanización. La zona central está constituida por villas construidas a principios del siglo pasado de estilo afrancesado, para la alta sociedad del momento, de las cuales, muchas de ellas se encuentran incluidas en el Catálogo de Protección del Patrimonio Cultural de Irun. La urbanización de la zona fue pensada en su momento para dar acceso a estas edificaciones. Existieron también

batzuk ere egon ziren eremuan, hala nola CHOLOCATES ELGORRIAGA, TUBESCA edo CARTONAJES DEL BIDASOA. Gaur egun desagertu dira denak, eta horien ordez urbanizazioak eraiki dira. Eremua, beraz, bizitegitarako erabiltzen da. Eremuan bi ikastetxe (Musika Eskola eta Mendibileko Ikastola Txikia) daude, Mendibil parkearen barruan, bai eta adinekoentzako egoitza bat ere. Eremuko kaleak norabide bakarrekoak dira, espaloi estuak dituzte eta pendiz handikoak dira.

4.- BEHARREN PROGRAMA

Azterlanean auzoaren urbanizazioaren egungo egoera aztertu behar da, eta alternatiba bideragarriak proposatu hautematen diren arazoak konpontzeko, zehazki alderdi hauei dagokienez:

- ✓ Ur eta sanemenduko azpiegiturak
- ✓ Elektrizitate, gas eta telefoniako azpiegiturak
- ✓ Argiteria publikoaren instalazioa
- ✓ Auzoaren irisgarritasun-baldintzak (pendizak, espaloien zabalera...)
- ✓ Zoladuraren egoera
- ✓ Trafikoaren azterketa, hala auzotarrena nola paseko ibilgailuena
- ✓ Zuhaitzen azterlana
- ✓ Auzoko aparkatzeko berezko beharren azterketa.

Planteatutako proposamenek hirigintza-araudia bete beharko dute, bai eta aplikagarriak diren beste lege-xedapenetan xedatutakoa ere.

5.- LANEN GARAPENA ETA EDUKIA

5.1 EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA

Lehen lan hau idaztean, esleipendunak datuak jasoko ditu eta eremua aztertuko du, azterlanaren xede den urbanizazioaren arazoak identifikatzeko.

5.2 ALTERNATIBEN PROPOSAMENA

Bildutako datuekin, planteatutako alternatiben proposamena egingo da, hautemandako arazoei konponbidea emateko.

Aukeren bideragarritasuna baloratzeko, proposamen

en la zona en diferentes momentos fábricas importantes como "CHOCOLATES ELGORRIAGA, TUBESCA o CARTONAJES DEL BIDASOA", hoy en día desaparecidas y donde en su lugar se han construido diversas urbanizaciones, confirmando el carácter residencial de la zona. Existen en la zona 2 centros educativos (Conservatorio de Música y la Ikastola Txiki Mendibil), que se encuentran dentro del recinto del Parque de Mendibil y una Residencia de Ancianos. La urbanización de la zona está conformada por viales de un único sentido y aceras estrechas, con una pendiente elevada.

4.ª- PROGRAMA DE NECESIDADES

El estudio debe de analizar la situación actual de la urbanización del barrio y proponer alternativas viables para solucionar los problemas que se detecten y más concretamente en relación a los siguientes aspectos:

- ✓ Infraestructuras de agua y saneamiento
- ✓ Infraestructuras de electricidad, gas y telefonía
- ✓ Instalación de alumbrado público
- ✓ Condiciones de accesibilidad del barrio (pendientes, anchura de aceras…)
- ✓ Estado de la pavimentación
- ✓ Análisis del tráfico tanto, el propio de los vecinos, como el tráfico de paso.
- ✓ Estudio del arbolado
- ✓ Análisis de las necesidades de aparcamiento propias del barrio.

Las propuestas planteadas deberán ajustarse a la normativa urbanística vigente y a la cumplimentación de lo dispuesto en otras disposiciones legales que resulten de aplicación.

5.ª- DESARROLLO Y CONTENIDO DE LOS TRABAJOS

5.1 ESTUDIO DE LA SITUACION ACTUAL

Será en la fase de redacción de este primer trabajo cuando se realicen, por parte del adjudicatario, la toma de datos y el estudio del ámbito, que permitan identificar las diferentes problemáticas de la urbanización objeto del estudio.

5.2 PROPUESTA DE ALTERNATIVAS

Con todos los datos obtenidos, se realizará la propuesta de las alternativas planteadas para la solución de las problemáticas detectadas.

Con el objetivo de valorar la viabilidad de las diferentes

bakoitzerako aurrekontu-zenbatespen bat egingo da.

Hori guztia dokumentu batean jasoko da, eta horren bi ale entregatuko zaizkio Udalari paper-formatuan eta euskarri digitalean.

Honako hau izango da, gutxienez, alternatiba-azterketaren edukia:

a) Egungo egoera
b) Egoeraren azterketa
c) Proposatutako alternatiben identifikazioa eta deskribapena
d) Proposamenaren memoria deskriptiboa
e) Araudia betetzearen justifikazioa
f) Proposamenaren plano orokorrak
g) Balorazio ekonomikoa, kapituluka
h) Ondorioak eta gomendioak

Horrez gain, planteatutako proposamenaren 3D-ko infografiak prestatuko dira.

5.3 LANAK AURKEZTEA

Dokumentu guztiak modu ordenatu eta zehatzean aurkeztuko dira, idazteko eta marrazteko kalitate hobereneko paperetan, neurriz kanpoko planoak edo erabiltzeko zailak direnak saihestuz.

Jatorrizko 2 ale eta CD birproduzigarria aurkeztuko dira dokumentazio osoarekin.

Gainera, AUTOCAD formatuan aurkeztuko dira planoak, eta aurrekontua, berriz, PRESTO edo BC3 formatu trukagarrian.

Era berean, herritarrei proiektuen berri behar bezala emateko, esleipendunak, betiere, infografiak aurkeztuko ditu 3D-n, bai eta proiektaturiko obraren informazioaren deskribapena ere laburbilduta.

6.- IDATZIKO DUEN TALDEA

Gutxienez honako hauek osatu beharko dute proiektua idazten duen taldea:

- Aukeren azterketaren eta proiektuaren egilea (k), lan mota horietarako eskumena duen Goi-mailako Teknikaria.

Gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko du antzeko proiektuak idazten.

alternativas, se elaborará una estimación presupuestaría para cada propuesta.

Todo ello se recogerá en un documento, del que se entregarán dos ejemplares en formato papel y en soporte digital al Ayuntamiento.

El contenido del estudio de alternativas será como mínimo el siguiente:

a) Estado actual
b) Análisis de la situación
c) Identificación y descripción de las alternativas propuestas
d) Memoria descriptiva de la propuesta
e) Justificación del cumplimiento de normativa
f) Planos generales de la propuesta
g) Valoración económica por capítulos
h) Conclusiones y recomendaciones

Así mismo, se prepararán infografías en 3D de la propuesta planteadas.

5.3 PRESENTACIÓN DE LOS TRABAJOS

Todos los documentos se presentarán en forma ordenada y concisa sobre papeles para escritura y dibujo de la mejor calidad, evitándose planos de tamaño desproporcionado o de difícil manejo.

Se presentarán 2 ejemplares originales y CD reproducible con la documentación completa.

Los planos se entregarán además en formato AUTOCAD y el presupuesto en formato PRESTO o BC3 intercambiable.

Igualmente, para la adecuada comunicación a los ciudadanos del contenido de los proyectos, el adjudicatario deberá también, en todo caso, presentar infografías en 3D y una descripción informativa y resumida de la obra proyectada.

6.ª - EQUIPO REDACTOR

El equipo redactor deberá estar compuesto como mínimo por:

- La o las persona/s autora/s del estudio de alternativas y del Proyecto, Técnico Superior competente para este tipo de trabajos

Deberá tener como mínimo 5 años de experiencia en la redacción de proyectos similares.

Tituluak aipatutakoak edo Espainiako Goi Mailako Hezkuntzako Prestakuntzaren Espainiako Esparruko baliokideak izan ahalko dira, eta dagokion unibertsitate mailako agintaritzak ziurtatuta egongo dira.
Kontratuaren arduradun teknikoaren onespena ez badu, esleipendun gertatzen den enpresa aholkulariak ezingo ditu kanpoan utzi proposatzen duen erredakzio taldeko kideak, ezta beste batzuk izendatu haien ordez.

Las titulaciones podrán ser las mencionadas o sus equivalentes del Marco español de Cualificaciones para la Educación Superior, y estarán certificadas por la autoridad universitaria correspondiente.

La empresa consultora que resulte adjudicataria no podrá prescindir de ninguno de los integrantes del equipo redactor propuesto, ni sustituirlo por otro sin la aprobación del Responsable Técnico del Contrato.

Laguntzaileak proiektuaren egilearen enpresa berekoak edo beste batekoak izan ahalko dira. Beste enpresa batekoak badira, lankidetza konpromisoa hartzeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Los/as colaboradores/as podrán pertenecer a la misma empresa que la persona autora del proyecto o no, en cuyo caso deberán presentar su declaración de compromiso de colaboración.

Eskaintzan aurkeztutako taldearen parte hartzea kontratuak irauten duen denbora guztian mantenduko da.

La participación del equipo presentado en la oferta deberá de mantenerse a lo largo de todo el contrato

Proiektua idazteko **adskribatu beharreko gutxieneko lantaldearen osaera** aurkeztu beharko da, haren curriculum vitaea eta antzeko lanetan duen esperientzia eta prestakuntza zehaztuta. Era berean, berariaz, kide bakoitzak bete beharreko funtzioak eta aurreikusitako dedikazioa adieraziko dira. Lantaldearen egitura eta osaera konpromiso formaltzat hartuko da esleipendun gertatuz gero.

Se presentará la composición del equipo humano **mínimo exigido** y que se va a adscribir a la redacción del proyecto, con detalle relativo a su curriculum vitae, experiencia y cualificación en trabajos similares. Así mismo, se indicarán expresamente las funciones a realizar y la dedicación prevista. La estructura y composición del equipo de trabajo, se entenderá como un compromiso formal, en caso de resultar adjudicatarios.

7.- INGURUMEN IKUSPEGIA

A) Proiektua gauzatzean, laguntza teknikoak ingurumenean duen eragina minimizatu beharkó da.
- Inprimaketa-kopurua murriztea, ahalik eta gehien doituz,
- Paper birziklatuaren erabilera.

7.ª- PERSPECTIVA MEDIOAMBIENTAL

A) En la ejecución del proyecto se deberá minimizar el impacto medioambiental de la propia asistencia técnica:
- Reducción del número de impresiones ajustándolas al máximo.
- Utilización de papel reciclado.

2022ZAUN0119



Ayuntamiento Udala irun www.irun.org	E=1/1800 OCTUBRE2022 URRIA	PROYECTO : ESTUDIO DE NECESIDADES DE LA ZONA DE MENDIBIL	PLANO : **ÁMBITO ACTUACIÓN**